

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2025/07/23

Ordua: 18:00-ak

Tokia: Udaletxeko Areto Nagusian

Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure

Zinegotziak:

EHBildu

Agustin Lekuona Irastorza
Olaia Lasa Olaziregi
Garazi Urdampilleta Astibia
Ibon Mitxelena Fernandez
Nora Velez del Burgo Zalakain
Jexux Olaziregi Bagües
Edorta Fernandez Etxepeteleku
Oihana Irastorza Gonzalez
Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
Ekain Susperregi Ibarguren

EAJ-PNV

Janire Mitxelena Lekuona
Rafael Bergaretxe Urdampilleta
Maitane Larruskain Agirre
Iñaki Arbelaiz Mitxelena

Idazkaria:

Xabier de la Mota Vazquez

Ezin etorria adierazi dute:

AZTERGAIAK:

1. Aurreko batzarrari dagokion aktaren onartu zen.
2. Azpeitia Isasa SL. ALT-6 eremuko R-1 lursailean etxebizitzak antolatzekeo Xehetasun Azterketa onartu zen.
3. Kontabilitateko eskubideen bajak onartu ziren.
4. 2024. urterako igoera gehigarria (%0,5ekoa) eta honen aplikazioa erabaki eta onartu zen.
5. Enplegu publikoa antolatzekeo 2025-2027 plana onartu zen.
6. Organo kolegiatuetakoko udalaren ordezkarien izendapena: GPS-Gipuzkoako Parketxe Naturalaren Sarea fundazioarena aldatu zen.
7. Kontu orokorra: Kontu bateratuen Memoriaren berri eman zen.
8. Beste organoen jardueraren jarraipena egin zen.
9. Ez zen eskari-galderarik egon.

-I-

AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA

2025eko ekainaren 25ean egindako Udal Osoko ohiko bilkuraren akta eta 2025eko ekainaren 30ean Udal Osoko ez-ohiko bilkuraren akta onartu ziren aho batez, aldeko 15 botorekin (EH Bildu 11, EAJ/PNV 4)

-II-

AZPEITIA ISASA SL. ALT-6 EREMUKO R-1 LURSAILEAN ETXEBIZITZAK ANTOLATZEKO XEHETASUN AZTERKETA

Alkateak azaltzen du, ebazpen proposamen bat dela, 2025eko martxoan sustatzaileak aipatutako eremuan etxebizitzak antolatzeke idatzitako xehetasun azterketa aurkeztu zuela. Bertan hasiera batean aurreikusten ziren etxebizitzak baino lau gehiago planteatzen dira, horretarako esandako etxebizitzaren beheko solairuetan aurreikusten ziren lokal komertzialak kentzea planteatzen da. Udal arkitektoak egiten duen txostenean adierazten du ez dagoela horretarako eragozpenik, aldaketak ez baitu eraikigarritasun urbanistikoaren hazkuntzarik eragiten, beraz, Tokiko Gobernu Batzarrean apirilaren 29an aurkeztutako dokumentuei hasierako onarpena eman zitzaion.

Ondoren Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako departamenturi eta Mugikortasun iraunkorreko Ministerioko AESA-ri bidali zitzaion, hauek aldeko txostenarekin erantzun zuten.

Idazkariak hitza artzen du, azpimarratu nahi du, eraikigarritasun urbanistikorik ez dagoela, baina etxebizitza, lokala edo trastelekuaren balioa handiagoa denez, bai dagoela eraikigarritasun ponderatua, hau da balioa handitu denez, sustatzaileari likidazioa berri bat igorriko zaiola % 15koa.

Guzti hau kontutan hartuta, Udal teknikariak egindako txosten juridikoa eta Lurralde batzorde informatzaileak 2025eko uztailaren 2an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Lehena.- AZPEITIA ISASA S.L. sustatzaileak aurkeztu eta David Calvilla Hidalgo arkitektoak 2025eko martxoan idatzitako “ALT-6 Altzibar Mendebaldeko eremuko R-1 orubearen xehetasun azterketa” dokumentuari behin betirako onarpena ematea.

Bigarrena.- Ebazpen hau eta dokumentuaren arautegia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean, hedadura handiko egunkari batean eta web orrian argitaratzea eta sustatzaileari jakinaraztea.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri ematea hirigintzaren arloan eskumena duen foru-organoari.

Laugarrena.- Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 27. artikulua araberak, eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzari dagokion %15a zehazki eman beharreko 40.795,20 €ko kopuruko likidazioa onartzen da.

-III-

KONTABILITATEKO ESKUBIDEEN BAJAK

Alkateak azaltzen ditu, ez dituela xehetasun guztiarekin azalduko, baina kontuhartzaitzako txostenaren arabera, zenbait eskubide bikoiztuak edo behar baino kopuru handiagoagatik onartu zirela eta ez denez diru sarrera berririk espero onartutako eskubideengatik eta bestetik, Zergabilketa eta kontabilitate programen arteko diferentziengatik, kontabilitatean dauden zenbait eskubidek ez dute oinarrikerik zergabilketa programan eta ondorioz ez dira inoiz kobratuko, beraz, baliogabetzea proposatzen da.

Guzti hau kontutan hartuta, Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko uztailaren 17an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Entitatearen egoeraren irudi zehatza emate aldera, ondorengo taulan zerrendatzen diren aurrekontu itxietako eskubideak baliogabetzea proposatzen da:

Kontzeptua	Zergabilketa	Kontabilitatea	R	Bajak
Etkez-etxeko zerbitzua	0,00	61,42	498/2006	61,42
Zerga: enpresa iharduerak	0,00	85,20	879/2007	85,20
Zergak: hiri ondasunak	0,00	529,81	798/2010	529,81
Tasak: plakak, patenteak	0,00	139,59	753/2012	139,59
Rielak, posteak,...	0,00	158,67	1582/2017	158,67
Rielak, posteak,...	0,00	34,14	1605/2017	34,14
Etkez-etxeko zerbitzua	0,00	18,29	1696/2018	18,29
Gastu arrunten itzulketa	-	51,86	1745/2019	51,86
Rielak, posteak,...	0,00	0,01	1721/2021	0,01
Dirulaguntza Euskara	-	1.072,20	1751/2021	1.072,20
Tasak: hirigintza baimenak	0,00	0,01	749/2022	0,01
Aprobetxamenduak	-	574,50	1202/2022	574,50
Dirulaguntza: bizikidetza	-	8.648,00	1559/2022	8.648,00
Dirulaguntza Euskara	-	5.097,00	1067-2020	5.097,00
Dirulaguntza: enplegu plana	-	750,00	1605/2022	750,00
Etkez-etxeko zerbitzua	0,00	0,23	109/2023	0,23
Rielak, posteak,...	0,00	0,01	1612/2024	0,01
Dirulaguntza: garapen jasangarria	-	2.235,75	1821/2024	2.235,75
Errentamentua: landa finkak	-	1.023,25	1930/2024	1.023,25
Konpentsazioa energia eta finantza enpresen partaidetza	-	101.556,69	2083/2024	101.556,69



-IV-

ONARTZEA 2024. URTERAKO IGOERA GEHIGARRIA (%0,5EKO) ETA HONEN APLIKAZIOA ERABAKITZEA

Alkateak adierazten du, Ministro kontseiluak, 2025eko uztailaren 1eko bileran, erabaki zuela sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsarien ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria aplikatzea. Ohikoena langile guziei aplikatzea izaten da, baina urte hasieran udalak egindako balorazioaren ondorioz antzemanda soldata batzuetan badagoela aldea eta proposatzen da zerrendan aipatzen diren lanpostuei dagokion igoera aplikatzea, beti ere 33.000 euroko koste gehigarria gainditu gabe.

Guzti hau kontutan hartuta, Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko uztailaren 17an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Lehenengoa.- Onartzea ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan aurreikusitako ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria (4/2024 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, Ukraina eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zerga-, energia- eta gizarte-arloko premiazko neurriak onartzen dituen), eta igoera hori aplikatzea Oiartzungo Udalaren 2025. urteko lanpostu zerrendako honako lanpostu hauetan, lanpostuen balorazio-prozesuak eragindako destino- eta berariazko osagarriak eguneratzeko:

- Arkitekto arduraduna.
- 3 arkitekto tekniko.
- Biltegizaina
- Eraikin garbitzailea
- Delineantea
- Mendi eta Ingurumen teknikaria
- Liburutegi laguntzailea

Bigarrena.- Eranskinean jasotako 2025. urteko lanpostu zerrendaren aldaketek 2025eko abuztuaren 1etik aurrera izango dituzte ondorio ekonomikoak.

Hirugarrena.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

-V-

ENPLEGU PUBLIKOA ANTOLATZEKO 2025-2027 PLANA ONARTZEA

Alkateak azaltzen du, plan honen xedea Oiartzungo Udalaren udal-plantillaren antolaketa- eta funtzio-egitura egokitzea, Herritarrei Arreta Zerbitzu berria ezartzeak eta haren bulegoa irekitzeak dakartzan beharrian berrietara egokitzeak, hori da nagusiki.

Era berean, plan honek lehentasunezko jarduera-ildo gisa hartzen du Komunikazio, Gardentasun eta Herritarren Parte-hartzerako teknikariaren lanpostuaren berdefinizioa. Lanpostu horrek aurrerantzean "Berrikuntza eta Komunikazioko Teknikaria" izena hartuko duelarik.

Aipatutako neurri horietaz gain, honako hauek ere jasotzen ditu:

1. Langileak hautatzeko eta haien karrera profesionala sustatzeko neurriak.
2. Telelana eta lanpostuaren kokapena malgutzeko barne-araudia.
3. Lanpostuak baloratzeko irizpideak.
4. Plantilla gaztetzeko eta enplegu egonkorra sendotzeko ekintzak.
5. Enplegua eta ikasleen praktikak sustatzeko programak

Guzti hau kontutan hartuta, Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko uztailaren 17an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Lehenengoa.- Udal honetako giza baliabideak antolatzeko 2025-2027 plana onartzea. Eranskinean jaso da.

Bigarrena.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udal honetako iragarki-oholean eta udaleko webgunean argitaratzea.

-VI-

ORGANO KOLEGIATUETAKO UDALAREN ORDEZKARIEN IZENDAPENA ALDATZEA: GPS-GIPUZKOAKO PARKETXE NATURALAREN SAREA FUNDAZIOA

Alkateak azaltzen du, 2023ko uztailaren 12ko bilkuran, GPS-GIPUZKOAKO PARKETXE NATURALAREN SAREA FUNDAZIOra, ordezkaria Olaia Lasa Olaziregi izendatu zela, eta ordezeko bezala Garazi Urdampilleta Astibia.

Titularra aldatzeko komenigarritasuna ikusi delarik, Lasa andrearen ordezkari Agustin Lekuona Irastorza izendatu nahi da eta ordezeko Olaia Lasa Olaziregi.

Bozketa proposatzen du alkateak, ondorengo emaitzekin:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	11	EH Bildu
Aurka		
Abstentzioa	4	EAJ/PNV

Guzti hau kontutan hartuta, Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko uztailaren 17an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz, hartu du honako

AKORDIOA

Bakarra.- GPS-GIPUZKOAKO PARKETXE NATURALAREN SAREA FUNDAZIOA partaide anitzeko erakundean udalaren ordezkariak aldatzea, eta aurrerantzean Agustin Lekuona Irastorza kide eta ordezeko Olaia Lasa Olaziregi izendatzea, Olaia Lasa Olaziregi eta Garazi Urdampilleta Astibia izendapenei amaiera emanez.

-VII-

KONTU OROKORREI KONTU BATERATUEN MEMORIA GEHITU IZANAREN BERRI EMATEA.

Idazkariak azaltzen du, lege aldaketa baten ondorioz, kontu orokorra orain arte onartu eta berri ematen zela eta orain ez bakarrik udalaren kontu orokorra baizik eta udalari atxikita dauden erakundeei buruzko memoriaren berri ere eman behar dela, beraz, ekainak 26ean egindako Udal Osoko batzarrean onartutako kontu orokorre, kontu bateratuen memoria gehitu dela jakinarazten da.

Zalantzarik egon ezean kontuhartzaitzak argituko duela aipatzen du.

-VIII-

BESTE ORGANOEN JARDUERAREN JARRAIPENA: HARTUTAKO ERABAKIEN (ALKATETZAREN EBAZPENAK, GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK), PROTOKOLO GASTUEN BERRI EMATEA ETA AIPIRILA-EKAINA HILABETEETAKO EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Idazkariak honakoen berri eman die Udalbatza kideei:

1. Hartutako erabakiak:

Alkatearen ebazpenak:

2025eko ekainaren 28tik uztailaren 18ra arte.

Zk. 2025/1152tik 2025/1325ra.

Tokiko Gobernu Batzarra:

Bilkura honen deialdia egin zen eguna arte Tokiko Gobernu Batzarra bitan bildu da, 2025eko ekainaren 10ean eta ekainaren 24ean, hain zuzen ere.

2. Protokolo eta ordezkapen gastuak eta dietak:

2025eko uztaila:

	Harpidetzak	59,00	
	Bidaiak	43,94	
3.	Guztira	102,94	2025eko bigarren
	hiruhilekoari dagokion aurrekontuaren exekuzioaren, aurrekontuz kanpoko mugimenduen eta diruzaintzaren egoeraren berri ematea:		

2025eko udal aurrekontuen apirila-ekaina hilabeteetako exekuzioaren berri eman da, eranskin modura aurkezten den dokumenturen bidez. Halaber, 2025eko diruzaintza planaren exekuzioa, diruzaintza kontua, aurrekontuzkoak ez diren kontuak eta diru-fluxuen egoera-orria dokumentuak ere aurkezten zaizkio Udalbatzari. Gogorarazten da uneoro agiriok kontu-hartzaitzak bulegoetan egongo direla eta web orrian ere zintzilikatuko direla edonork ikusteko.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 18:10ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritik Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea



Sin.: Joana Mendiboure

Idazkaria



Sin.: Xabier de la Mota

